

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Kain-konplexua



ARITZ GALARRAGA

Iragan berri diren hauteskundeen harira entzun dut: Kolonbiako eskualde batzuk beste batzuk baino mugituagoak direla –eta, ez dakit zergatik, imajinatzen dut Kolonbiako eskualde lasaienak ere munduko ia beste edozein eskualde baino puska mugituagoak izan behar direla–. Halakoxea imajinatzen dut, hain justu, mugitua, Ukraina –bai, behingoagatik: gauza bat da aktualitateari kasu berezirik ez egitea, eta beste bat aktualitatea existituko ez balitz bezala bizitzea–. Gertatuak ikusita, badakit ez dudala ematen oso espabilatua. Baina gertaera belikoek areagotu egin dute herrialde harekiko interesa. Zer esanik ez irakurgaiak uztartzen baditu gaur egungo egoera gatazkatsua, eta gatazkan dauden herrialdeen literatura, egiten duen bezala Marta Rebón idazlearen azken lanak, *El complejo de Caín*, bere anaia Abel hil zuen haren izena daramana.

Ukraina-Errusia, Errusia-Ukraina harremana, azken buruan, anai-arreben artekoa baita, Nikolái Gógolek esan zuen hura: ukrainar bat ez dela errusiar bat baino gutxiago, eta alderantziz, eta ez badira gauza bera, besterik ez bada elkarren osagarri direla. Nazioei gertatzen zaiena geografiari esker esplika daitekeela ere esan zuen Gógolek. Hortik, beraz, Ukrainaren mugitutasuna: muga eremu batean kokatua, *pays-de-frontières* gisako bat genuke, Asiak eta Europak talka egiten duten lekua, mundua ulertzeko toki pribilegiatua, poliglota eta multikulturala, Odesa edo Lviv bezalako hiri kosmopoliten ariman islatzen dena. Errusiarentzat, ordea, errusiar unibertso deitu izan den horretan jokatu nahi duen paperarentzat, mehatxu da Ukraina burujabe eta europar bat. Inbasioarekin, hartara, urrundu egin da Rebón literatura errusiarra hartzen duten apalategietatik. Ez, noski, fedea galtzeraino: Vasili Grossman, Lidia Chukóvskaia, Isaak Bábel, Liudmila Ulítskaia, “indarberritu nau bereziki Irène Némirovskyk idatzitako *Chéjoven* bizitza irakurtzeak”. Hitz idatziak maiz, ondo dakite errusiarrek hori, errealitateak berak baino balio handiagoa izan dezake eta. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

AURREIKUSPEN FALTAREN...



...ATZEIKUSPENA.



ADUR

Mozal Legea

Otsailean Jose Ignacio Munilla apezpikua agurtzeko Donostian egin zen performancea ikusten izan zen Beatriz Goñi. Orain, zigortu egin dute identifikarazi zutenean ahoz adierazi zuelako bere NAN zenbakia. Identifikatzeari uko egitea egotzita, 700 euroko isuna jarri dio Ertzaintzak.

Esa

Esako urtegiari buruz Espainiako Gobernuak enkargatutako txostena galdu dela salatu dute. Espainiako Bide Ubide eta Kaietako ingeniariaren Kolegioari egin zion enkargua Espainiako Gobernuak, ikusteko urtegiaren bideragarritasunaz erakundeak zer zioen.

Ernai

Aurrera begirako erronkak eta asmo politikoak jasotzen dituen *Eho-tzen* ponentzia onartu du Ernaik, III. Kongresuan, boto-emaileen %93ren babesarekin. 500 bat gazte bildu ditu ekitaldiak. “Gazte mugimendua indartu eta gazte fronte geldiezin bat osatzera goaz, gazte olatu bat”.